



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0009

Idiazabalen, bi mila eta hogeiko ekainaren 1ean.

ELKARTUTA

Alde batetik, **ALOÑA BARANDIARAN MUNDUATE** anderea, Idiazabalgo Udaleko Kultura, Euskara, Kirola, Gazteria eta Hezkuntza arloetako zinegotzi delegatua.

Bestetik, **JOSE INAZIO LASA ESTENSORO** jauna, 08902509Z NAN zenbakiduna, «**GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB ELKARTEA**»ren izen eta ordezkartzan, IFZ: G-75162271 zenbakiduna, Lazkaoko udalerriko Euskadi Enparantza 4ean helbideratua

ARI DIRA

ALOÑA BARANDIARAN MUNDUATE anderea, Idiazabalgo Udalaren izenean, dokumentu hau sinatzeko berariaz baimenduta.

JOSE INAZIO LASA ESTENSORO jauna, 08902509Z, «**GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB ELKARTEA**»ren izenean eta ordezkartzan, IFZ: G-75162271 zenbakiduna, Lazkaoko udalerriko Euskadi Enparantza 4ean helbideratua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Nagusian inskribatua 2016ko abuztuaren 9an emandako Ebazpenaren ondorioz, CD0006381 erregistro zenbakiarekin.

Parte-hartzaileek agiri hau sinatzeko behar den lege gaitasuna aitortzen diote elkarri eta hala, hau

ADIERAZTEN DUTE

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. 26 atalak xedatutakoaren arabera, udal eskumen propioa da Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak onartu eta kudeatzea lege honen 7. Artikuluan xedatutakoaren arabera *“izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Eskumen hori egikaritu ahal izateko, udal bakoitzak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta euskararen erabilera normalizatzeko beharrezkoak diren planak onetsi eta garatuko ditu, kontuan izanik instituzio komunitatik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak”*.

10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoak, euskararen normalizazioa arautzen du, hau da, euskara gizarte-funtzio guzti-guztiak betetzeko gauza izan dadin beharrezko prozesua abian jartzea.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak erakunde publikoen normalizazio-prozesuak garatzen ditu, eta, euskara zerbitzurako hizkuntza izate aldera, bere ezarpen-eremua administrazioek eurek barne-erabilera arautzeko egiten dituzten plangintzetara mugatzen du.



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0009

Idiazabalgo Udabatzak, 2019ko abenduaren 12an egindako ezohiko bileran, gehiengoz, erabaki zuen 2020ko Aurrekontua hasieraz onartzea eta, horren barruan, «**GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB ELKARTEA**»ri zuzeneko diru laguntza izenduna ematea.

Ildo horretatik, Alkate udalburuak, 2020ko urtarrilaren 8an sinatutako Dekretu bidez, ebatzi du Idiazabalgo Udaleko Diru laguntzen Plan Estrategikoa onartzea. Horren I. eranskinean, hitzez hitz, honako hau xedatuta dago:

13/2019

1. Organo emailea: Idiazabalgo Udala (Kultur Saila)
2. Zenbatekoa: 2.310 €
3. Finantza iturria: Udala
4. Kontu izendapena: 1.481.02.341.00
5. Kudeaketa mota. Hitzarmena
6. Araudia: Idiazabalgo Udalaren eta Goerri Gorri nesken futbolaren taldea elkarrean arteko hitzarmena, emakumezkoaren futbola sustatzekoa.
7. Lortu nahi diren helburuak eta ondorioak:
 - a) Kirol jarduerak antolatzea
 - b) Kirol lehiaketetan esku hartzea
 - c) Udal kirol eskoletan lankidetzaz
 - d) Udal interesa duten kirol ekitaldiak antolatzea
8. Onuraduna. Goerri Gorri Futbol Klub elkarteak
9. Epea: 2020

13/2019

1. Concedente: Ayuntamiento de Idiazabal (Departamento Cultura)
2. Importe: 2.310 €
3. Fuente de financiación: Municipal
4. Aplicación presupuestaria: 1.481.02.341.00
5. Modalidad de gestión. Convenio
6. Normativa: Convenio entre el Ayuntamiento de Idiazabal y la asociación Goerri Gorri nesken futbolaren taldea para la promoción del fútbol femenino.
7. Los objetivos y efectos que se pretenden alcanzar:
 - a) Organización de actividades deportivas
 - b) Participación en competiciones deportivas
 - c) Colaboración en las escuelas deportivas municipales
 - d) Organización de eventos deportivos de interés municipal.
8. Beneficiario/a: Goerri Gorri Futbol Klub
9. Plazo: 2020

Kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria. Pertsona guztien funtsezko eskubidea da kirola eta eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatu behar du Idiazabalgo Udalak.

Idiazabalgo Udalak ezinbestekotzat jotzen du kirola eta genero berdintasuna sustatzeko jarduerak bultzatzea.

2016ko ekainaren 15ean GOIERRI-GORRI FUTBOL KLUB- a sortzen da eskualde mailan emakumeei irtenbidea emateko futbol modalitatean. Izan ere, herrietako klubek hainbat zailtasun zituzten nesken modalitatean taldeak aurrera ateratzeko.

«**GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB ELKARTEA**» Goierri eskualdean dagoen nesken futbol elkarte bakarra da 271 bazkide inguru ditu, horietako 250 neska jokalaria izanik. Urtean zehar



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0009

Gipuzkoako liga, Gipuzkoako Kopan eta Eskadiko ligan parte hartzen dute, ondoren azaltzen diren kategoria eta talde hauekin:

2019-2020 denboraldia

Idiazabalen Futbol eskola (Arizkorreta zelaian), Gipuzkoako Txapelketetan 9 partidu urtean zehar talde bakoitzak eta Ohorezko infantila, Gipuzkoako Txapelketan 30 partidu eta Kopan 4 partidu.

Beasainen Alebin (bi talde): urtean 9 partidu. Infantila+Kadetea(Igartzan) Gipuzkoako Txapelketetan 30 partidu urte zehar talde bakoitzak eta Kopan 4 partidu. Euskal Liga (Loinatzen)Euskadiko Txapelketa 30 partidu eta 4 Kopan

Lazkaon Alebin (2 talde): urtean 9 partidu. Infantila+Ohorezko Kadetea (Harizti Haundi) Gipuzkoako Txapelketetan 30 partidu urte zehar talde bakoitzak eta 4 Kopan.

Ordizian Alebin: urtean 9 partidu. Infantila+Kadetea+Ohorezko Seniorra (Altamiran) Gipuzkoako Txapelketetan 30 partidu urte zehar talde bakoitzak eta 4 kopan.

Guztira 15 talde izan dira (Eskola + 5 Alebinak+ 4 Infantilak+3 Kadete+ Ohorezko Seniorra+ Euskal Liga) eta denean artean 300 ekintzatan parte hartzen dute.

Goierrri Gorri talde txikienekin (Alebinak, Infantilak..) Eguberrietan Zumarraga, Aretxabaleta eta Intxaurdi txapelketetara joan da. Aste Santuan Andoain, Tolosa eta Martutenera joaten ohi gara. Aurten Covid-19 ko pandemiak bertan behera utzi ditu txapelketa hauek.

Ekainean **Berdintasunaren Aldeko 2^a infantil Nesken futbol txapelketa** ospatzeko asmoa zegoen. Beasain, Lazkao, Ordizia eta Idiazabalen. Aurten finala Idiazabalen.

Goierrri Gorri taldearen eta Idiazabalgo udalerrriaren arteko elkarkidetza egon da hasieratik eta hemendik aurrera indartzea espero da:

- Aurtengo denboraldiari (2019-2020) hasiera emateko Idiazabaleko Udaletxe aurrean atera ziren taldeko argazkiak guztiak.
- Goierrri Gorriren aurrengo Nesken Futbol Eskola (34 Neska) Idiazabaleko Arizkorreta zelaian entrenatu eta jolasten dute igandeetan. Gainera 2019-20an nesken ohorezko infantilak entrenatu eta jolastu Arizkorretako zelaian egin dute.
- 2020ko ekainaren 14an Goierrriko gorriko festa Idiazabalen antolatzeke asmoa dago.(COVID-aren eraginak hau aldatuko du)

Idiazabalgo herritar emakumeentzako ere kirol aukerak bermatuak izan daitezzen Idiazabalgo Udalak egokitzen jotzen du «**GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB ELKARTEA**»ri diru laguntza izenduna eta zuzena ematea, baita instalakuntzen erabilera-zerga ordaintzetik salbuesita uztea ere (2020. urteko Zerga- eta Prezio Publikoen Ordenantzek hala jasoko dute).

Erabiliko diren instalakuntzak, zerga-tasa ordaindu gabe, Arizkorretako Futbol Zelaia eta Zelaako kiroldegia dira. Nolanahi ere, kirol instalakuntzen erabilera pribatiboaren lagapena beste hitzarmen batean arautu beharko da.

Hori dela eta, bi aldek ituntzen dute:



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0009

KLAUSULAK

Lehenengoa. Hitzarmen honen bitartez arautzen da zein baldintzatan emango dion diru laguntza Idiazabalgo Udalak «**GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB ELKARTEA**»ri xede hauetarako:

- 1- Kirol jarduerak antolatzea
- 2- Kirol lehiaketetan esku hartzea
- 3- Udal kirol eskoletan lankidetzaz
- 4- Udal interesa duten kirol ekitaldiak antolatzea
- 5- Udalari aholkularitza ematea kirola eta genero berdintasuna udalerrian sustatzeko, eta helburu horrek dituen kolaborazioak egitea herriko eragileekin eta udal zerbitzu publikoekin.

Bigarrena. Horretarako, Idiazabalgo Udalak BI MILA HIRUREHUN ETA HAMAR EURO (2.310 €) jarriko ditu aurrekontuko 1.481.02.341.00 2020 "Transf. Arruntak. GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB ELKARTEA" kontu izendapenaren kargura. (1€ biztanleko)

Hirugarrena. «**GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB ELKARTEA**»k bete behar ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak baita azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorren 11. artikuluan onuradun izateko ezarritako gainerako baldintzak ere.

Idiazabalgo Udalak egingo dituen egiaztapenak onartzea, bai abenduaren 19ko 21/2003 Foru arauak, Gipuzkoako Toki erakundeetako Aurrekontuei buruzkoak, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiko legerian ezartzen diren finantza kontrolak ere, diruz lagundutako jarduerak aurrera eramanez eta gauzatzeari buruz eskatzen dioten informazio osagarri guztia emanez.

Idiazabalgo Udala jakinaren gainean jarriko duela beste herri administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berdineko beste diru laguntzaren bat ematen badie, edo diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada.

Idiazabalgo Udalaren lankidetzaz agertzea diruz lagundutako jarduerari buruz informazioa eman, publizitatea egin edo propaganda guztietan, bere irudi arauak zainduz beti ere. Halaber, euskaraz egingo da lehentasunez, eta gaztelania erabiltzen bada, inoiz ez da erabiliko euskara baino gehiago eta gehienez ere euskara erabiltzen den maiztasun berdinean erabiliko da. Generoaren ikuspegia ere kontuan hartuko da; eta, horrenbestez, ez da diskriminazio elementurik erabiliko ez hizkuntzan ez iruditan ez jardueretan.

Laugarrena. Idiazabalgo Udalak diru laguntza ordainduko dio «**GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB ELKARTEA**»ri:

2020ko ekainaren 5ean: 2.310,00 €

LABORAL KUTXA entitateko K/K: IBAN ES10 3035 0088 58 580880037428

Bosgarrena. «**GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB ELKARTEA**»k 2021ko urtarrilak 31 baino lehen aurkeztu beharko du eranskinetako dokumentuen ereduaren arabera:

- J01 - Baliabide propioak eta beste erakunde batzuetatik jasotakoak
- J02 - Ordainagirien egiaztatagiriaren zerrenda



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0009

- J03 - Proiektuko-jarduerako irabazi eta gastuen balantzea
- J04 - Langile gastuak eta Gizarte Segurantzakoak

Diru laguntza zuritzeko xedatutako epean ez bada aipatutako dokumentazioa aurkezten eranskineko ereduko dokumentuen arabera, 15 eguneko epean aurkez dezan eskatuko zaio elkarte onuradunari. Epe berriaren barruan egiaztapenak ez aurkezteak, seigarren klausulan aurreikusitako ondorioak ekarriko ditu.

Elkarte onuradunak lau urteko epean gorde behar ditu diruz lagundutako jarduera egin dela eta jasotako funtsak erabili direla egiaztatzen duten agiriak. Erakunde onuradunak egiaztagiriak aurkezteko duen epea amaitzen denean hasiko da lau urteko beste epe hori.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten denean, organo emaileak dagozkion egiaztapenak egingo ditu. Ondorioztatzen bada diruz lagundutako kostua onartutako diru laguntza baino txikiago dela, edo diru laguntza zuritzeko baldintzak ez direla osorik edo neurri batean bete, edo ez direla diru laguntzaren helburuak bete, onuradun erakundeari gorabehera horren berri emango zaio egindako egiaztapenaren emaitzekin batera eta seigarren klausulan aurreikusita dagoen bezala jokatu da.

Zeharkako kosteak finantzatzeko emandako diru laguntzaren zenbatekoaren %8 dira. Zeharkako koste horiek ez dute eskatuko zuriketarik.

Seigarrena. Elkarte onuradunak hitzarmen hau aldatzea eska dezake, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen. Halatan, eska dezake ezarritako epeak luzatzea, onartutako zenbatekoa murriztea, edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea, eta eskatutakoa onartua izango da baldin eta aurreikusi ezin diren gorabeherak gertatu badira edo beharrezkoa bada jardueraren burutzapen egokirako, betiere diru laguntzaren xedea edo helburua ez bada aldatu eta ez badio hirugarren bati kalterik egiten.

Idiazabalgo Udalak hitzarmen hau alda dezake erakunde onuradunari jakinarazi ondoren eta funtsak erabili aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan hartu ziren baldintzen aldaketek lortu nahi den interes publikoa eragotzi edo oztopatzen badute eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik egiten.

Elkarte onuradunak zuritzeko agirian jakinarazten badu aldatu egin direla diru laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak, eta, aldaketa horiek direla eta, lehen adierazitakoaren arabera ebazpena aldatu egin zitekeela, baina aldaketa onartu aurreko baimen administratiboaren tramitea ez zela egin bere garaian Idiazabalgo Udalak aurkeztutako egiaztapena onartu ahal izango du nahiz eta horrek ez duen onuraduna salbuesten azaroaren 17ko Legearen 61.-63. artikuluen arabera dagozkion zigorretatik.

Zazpigarrena. Elkarteko kideek Arizkorreta futbol zelaia erabiliko dute bere jarduera aurrera eramateko eta futbol zelaiko giltzak izango dituzte, lokalaren jarduerarako soilik erabiliko dituztenak.

Honez gain, zelaia erabiltzean txukun mantentzeaz arduratuko dira eta inzidentziarik bada, elkarteko kideek Udalari jakinaraziko diote.



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0009

Zortzigarrena. «GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB ELKARTEA»k ondoko betebeharrak izango ditu:

1. Plangintza: Udalarekin batera adostutako urteko plangintza beteko du.
2. Idiazabalgo Udala dagokion esparruan zabalduko du.
 - a. Argitaratzen dituen euskarri guztietan IDIAZABALGO UDALA agertzea.
3. Erantzukizun zibileko poliza: Elkarreak bere egitekoak eskaintzean sor ditzakeen kalte galera guztiak estaliko dituen Erantzukizun Zibileko Poliza hitzarmenduko du.
Era berean, euren ekimenez antolatutako ekitaldietan eta jardunetan aseguru poliza eta Gurutze Gorria, DYA edo antzeko erakundeekin asistentzia-zerbitzua kontratatzea, behar denean, eta Eusko Jaurlaritzak zein Idiazabalgo Udalak eskatzen dituzten ikuskizun publikoak antolatzeko baimenak eskatu eta osasun -, segurtasun- eta ingurumen-baldintzak beteko ditu.
4. Segurtasuna: Jarduera guztietan Legeak agindutako segurtasun neurriak hartuko ditu, partaideen segurtasuna babestuz.
5. Pertsonala: Idiazabalgo Udalak ez du inolako harreman juridikorik izango, ez laboral modukoa ez beste modu batekoa ere, elkarteko pertsonekin edo berarekin elkarlana egiten dutenekin. Elkarrearen ardura izango dira laneko edo beste izaera duten betebeharrak eta erantzukizunak.
6. Hizkuntza politika: Euskara hutsa edo euskara eta gaztelania erabiliko dira inprimaki, ohar eta jakinarazpen guztietan. Elebitan izanez gero, euskara lehenetsiko da.
7. Generoa eta Berdintasuna: Hizkeraren berdintasunezko erabilera bermatuko du.
8. Birziklapena: Bere ekimenez antolatutako ekitaldien eta jardunaldien antolakuntzan hondakinen birziklapenaren aldeko ekintzak gauzatuko ditu, besteak beste, edalontzi eta tresna berrerabilgarriak zein hondakinak sailkatzeko ontzi egokiak erabiliz.
9. Parte hartzea: Idiazabalgo Udalak deitzen dituen bileretan parte hartuko du; horretarako ahalik eta parte hartzerik handiena egon dadin, beharrezko bide eta bitartekoak ezarriko dira.
10. Harremana: Kultur arloko teknikariari egindako jardueren eta ekitaldien berri emango diote eta jarraipen lanak erraztuko dizkiote.

Bederatzigarrena. Onuradurak ez badu betetzen hitzarmen honetan eta gainontzeko araudi aplikagarrian ezarritako baldintzetakoren bat, laguntza hau jasotzeko eskubidea galduko du erabat edo neurri batean, eta jasotakoa itzuli beharko du osorik edo neurri batean, legezko berandutza interesekin batera, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 40. atalak xedatutakoari jarraituz, eta erantzukizunak eskatuko zaizkio, aipatutako 38/2003 Legeak xedatutakoaren arabera. Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, indarrean dagoen diru laguntzei buruzko araudiarekin bat etorriz.



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0009

Lanaren bideragarritasunagatik edo izaeragatik, edo behar bezala justifikatutako beste arrazoiengatik ezingo balitz lana bukatu edo aurrera jarraitzea komeniko ez balitz, diru laguntza bukatutzat eman eta eten daiteke, bi aldeen artean adostua.

Hamargarrena. Hitzarmen honek sinatzen den egunetik hasi eta 2020ko abenduaren 31ra arte izango du eragina; eta edonola ere, hartutako konpromisoak erabat bete arte, hurrengo klausulan ezarritakoaren kaltetan gabe.

Hamaikagarrena. Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia pasatu delako edo hitzarmena hautsi delako iraugiko da. Alderdietako batek bere gain harturiko konpromisoak betetzen ez baditu, besteak ahalmena izango du zehatz-mehatz bete ditzan eskatzeko, edota hitzarmena amaitutzat eman dadin eskatzeko. Halaber, diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolana ere, diru laguntza hauez gain beste erakunde publiko nahiz pribatuengandik besteren bat jasoz gero, lankidetzat hitzarmena aldatu edo iraungi daiteke. Deseginez gero, alderdiek amaieraren baldintzak eta gauzatze bidean dauden jardueren ordainketak zehaztuko dituzte.

Hamabigarrena. Hitzarmen hau izaera administratibokoa da. Hitzarmena interpretatu edo betetzerakoan arazorik sortuz gero, administrazioarekiko auzibideko jurisdikzioak erabakiko ditu.

Hitzarmen honetan arautzen denaz gain, aplikatuko dira azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru laguntzen Legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.

Eta ados daudela frogatzeko, hitzarmen hau sinatzen dute goiburuan ageri diren lekuan eta egunean.

IDIAZABALGO UDALEKO ZINEGOTZI DELEGATUA
Aloña Barandiaran Munduate

GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB ELKARTEA
Jose Ignazio Lasa Estensoro

Nire aurrean,
IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK
Isabel Fuertes Matxin

